

Arrasate

P R E S S

1997ko
Urriak 31
382. zenb.



Udarako hotela Zerrajeran

Joan den astean hasi ziren Zaldibarren hotel berria egiteko obrak. Bi suite, 31 gela, jatetxeaz eta kafetegiaz. 20 lanpostu berri sortuko dira

**30 GALDERATAN: AITZIBER ARANBURUZABALA • KIROLAK: GARIKOITZ HERIZ
IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • IRITZIA: JUAN JOSE GOENAGA**

Merche

Taila guztiak, bereziak barne



Erdiko kale, 19
ARRASATE
Tel.: 79 17 92

Udazken-neguko moda dotoreena



SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz

Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala



Eskaintza hau egiten dizu goza dezazun:

AEROBICa

Goizez eta arratsaldez
Ikasiak eta hasberriak

KARATE

Haurrak (5 eta 9 urte)
Infantilak (10 eta 13 urte)
Helduak

GIMNASIA

3.adineko
mantenimendua.
Goizez eta arratsaldez

SAUNA

SOLARIUMa

MASAIA

Osteopatia
Kirol masaia
Drenaje linfatikoa
Kiromasaia
Ziatikak

MUSKULAZIOA

Kulturismoa
Fitness
Kirol prestakuntza
Lesioen erreabilitazioa

SQUASH

Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 79 97 31

Iraganaz ikasi

Gaurkoan, ohikoa ez den produktu baten dohaineko propaganda egitera natorkizuela uste izango duzue. Baina ez da produktu bat soilik. Interesgarritzat jo dudun liburu bat gomendatzeko asmotan nabil, irakurtzeko dagoen ohitura urria kontuan izanik, zaila baderitzot ere. Lan honek gertuko iraganean Euskal Herrian gertatutako hainbat pasarte politiko-sozialen berri ematen digu, nik behintzat, aipamen hutsez baino ezagutzen ez nituenak.

Zenbaitzuk gogoratu duzuen bezala, 70. eta 80. hamarkadaren artean, Euskal Herriko hainbat lantegi zein azotetan, aldaketa



Iker Barandiaran

“Autonomoekin solasean liburuan, lan talde hauetan aritutako hainbat pertsona elkarrizketatu ditu”

sozial eta politikoaren egarria zuen jende dezente elkartzen zen, edozein botere zein agintaritzaz motarenganako erabat kritikoa eta asanbladaren bidez antolatzen zena. Horietako batzuk, ideia horiekin lotuta, geroxeago burutu zituzten ekintza armatuak (CC.AA kasu) bereziki gogoratuak badira ere, orokorrean beraien iharduera askoz

zabalagoa zen. Alderdi eta buruzagirik gabeko antolaketa modeloak landuz, ezker ideologiaren barruan, eztabaida eta ikuspegi berri landu zituzten.

Geroxeago, transizioaren prozesuak, bere baliabide guztiak engainatzeko erabiliz, piskana-ka-piskana, mugimendu honen indarra eta presen-

tzia erabat ahultzea lortu zuen, bizibaldintzen hobetze eta konfortaren gozokiak eskainiz. Hala ere, beraiek utzitako esperientzia hor dago: anonimoki eta gizaki bakoitza kontuan izanik, aldaketak burutu ahal izatea, utopia izatetik praktikan gauzatu izatera, alegia.

Txalapartak aurten argitaratutako *Autonomoekin solasean* liburuan, lan talde hauetan aritutako hainbat pertsona elkarrizketatu ditu, hain aberatsak bezain herrikoiak izandako hauen dinamika eta nondik norakoak azalduz; eta aldi berean, garai konpultsibo haietan ezkerrean izandako prozesuak ezagutaraziz.

Hain gutxi ezagutzen dugun eta are gutxiago idatzi den etapa historiko hauen testimonioen garrantzia azpimarratu nahiko nuke nik, hobeto ezagutu eta bertatik ikasi genezakeena hain zuzen.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Iñaxo Zubillaga, Marian Porcel, Pabli Montero. **Publikatzailea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iñaxo Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreureta, Juan Luis Azkarate, Altor Oroibengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarra, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/89. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

382. zenbaki honetan

1997ko urriaren 31n

Asteko agenda.....	4/5	Astearen erreposoa....	10	30 galderatan.....	25
Irakurlea idazle.....	6	Orain eta hemen.....	11/13	Kulturaren txokoa.....	26/27
Inkesta.....	7	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza.....	28/29
Euren ikuspuntutik.....	8	Kirolak jokoan.....	20/23	Ikusi eta entzun.....	30

<i>Ikuspegia</i>	
Iker Barandiaran.....	3
<i>Euren ikuspegitik</i>	
Juan Jose Goenaga.....	8
<i>30 galderatan</i>	
Aitziber Aranburuzabala.....	25
<i>Kulturaren txokoa</i>	
Eluska Ezkurra.....	27
<i>Asteko gaia</i>	
Udarako hotela Zerrajeran.....	17/19



Mondragon Hotelak 58 ohe izango ditu eta egunero gutxienez erdia betetzea espero dute jabeek.

31

ostirala

■ ZINEA

Blackout. Alai zinemari arratsaldeko 7etan eta 9.30etan.

■ MUSIKA
HAMABOSTALDIA

Mondragon Brass taldeak kontzertua eskainiko du San Frantzisko elizan arratsaldeko 8etan. Aita Menni ospitalak antolatuta.

■ KONTZERTUA AMAIA
ANTZOKIAN

Feeling good, La oreja de Van Gogh eta *Koko Castillo* taldeek kontzertua eskainiko dute gaueko 10etan Amaia antzokiko hallean. Sarrera doan. Gaztemaniak antolatuta.

1

larunbata

■ ZINEA

Poder Absoluto. Alai zinemari 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ DOMU SANTU EGUNA

■ KONTZERTUA AMAIA
ANTZOKIAN

Bulgariako opera nazionalak *Madamme Butterfly* lana eskainiko du Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. San Juan de Dios ospitalak antolatuta.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Desafio eta *Lagash* talde heavyen kontzertua Gaztetxean gaueko 9etan.

2

igandea

■ ZINEA

Poder Absoluto. Alai zinemari 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ TRIAL TXAPELKETA
UDALAN

Goizeko 10etan hasiko da txapelketa Udalan.

■ SANTU GUZTIEN
EGUNA

Hildakoen erresponsoa San Kristobalgo kanposantuan, arratsaldeko 5etan.

■ KONTZERTUA AMAIA
ANTZOKIAN

Bulgariako opera nazionalak *Tosca* lana eskainiko du Amaia antzokian arratsaldeko 6etan. San Juan de Dios ospitalak antolatuta.

3

astelehena

■ ZINEA

Poder absoluto. Alai zinemari 7etan eta 9.30etan.

■ MUSIKA
HAMABOSTALDIA

Amaia Martinez bakarlaririk emanaldia eskainiko du arratsaldeko 5etan Aita Menni ospitalean.

■ XI. FAMILI
ASTEAREN HITZALDIA

Gaia: Bikotearen proiektua: zer den eta nola landu. Hizlariak: Juan A. Rad eta Isabel Garcia de Alzuru. Arratsaldeko 7.30etan Monterronen. Artziprestalgoko ezkontza eta famili pastoraltzak antolatuta.

4

asteartea

■ ZINEA

Poder absoluto. Alai zinemari 7etan eta 9.30etan.

■ XI. FAMILI ASTEAREN
HITZALDIA

Gaia: Nola pasa bikote izatetik familia izatera. Hizlariak: Juan C. Mendizabal eta Isabel Frias. Arratsaldeko 7.30etan Monterronen. Artziprestalgoko ezkontza eta famili pastoraltzak antolatuta.

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

HIES
EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA

5 asteazkena

■ **MUSIKA
HAMABOSTALDIA**

Arrasate Musikalen kontzertua Aita Menni ospitalean arratsaldeko 5etan.

■ **XI. FAMILI
ASTE - HITZALDIA**

Gaia: haurrari harrera nola egin bere lehenengo urteetan. Hizlariak: Victor Victoria eta Marian Sola. Arratsaldeko 7.30etan Montteronen. Artziprestalgoko ezkontza eta famili pastozak antolatuta.

■ **EUSKADIKO
ORKESTRA AMAIA
ANTZOKIAN**

Azaroaren 7an Euskadiko orkestrak kontzertua eskainiko du Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. San Juan de Dios ospitalak antolatuta.

■ **ERAKUSKETA AITA
MENNIN**

Azaroaren 8a arte *Gipuzkoarrak eta txirindularitza* gaiari buruzko erakusketa Aita Mennin. Goizez eta arratsaldez zabalik.

■ **AUTOENPLEGU ETA
ENPRESA EKIMENARI
BURUZKO IKASTAROA**

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak antolatu du. Ikastaroaren

helburuak ekimen berriak eta autoenpleguaren suspertzea, enpresa kultura zabaltzea, eta enpresa proiektua garatzeko formazioa ematea. Autoenpleguaren bidea jorrazteko eta negozio-ideiaren bat abian jartzeko asmoa daukaten promotori dago zuzenduta. Interesatuok Udalatxeko Enplegu Zerbitzura zuzendu, (79 09 00).

■ **PERKUSIO TAILERRA**

Iñaki Bruñaren eskutik astelehenetan emango da perkusio tailerra arratsaldeko 6etatik 9ak arte Gazteluondo ikastolan. Hastapen eta sakontze mailak eta erritmo desberdinak: afrikarrak, arabiarak, hegoamerikarrak,

sanba, rock and rolla. Izenematea Gazte Bulegoan egin behar da (77 00 65).

■ **TAILA IKASTAROA**

Azaroaren 8tik aurrera goi mailako taila ikastaroa emango da Arrasateko tailaginen elkartearen, Erguin 19, behea. Izena emateko gualdera deitu 79 40 79 (Felix) eta 79 67 64 (Imanol) zenbakietara.

■ **URBIL ETA TXOMIN
ARTOLA**

Azaroaren 8an Urbil eta Txomin Artolak kontzertua eskainiko dute Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. Sarrera: 500 pta. Antolatzailerak Aita Menni ospitala.

6 osteguna

■ **ZINE KLUBA**

Zabalik egunsentira arte. Zuzendaria: Robert Rodriguez. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pezeta eta Gazte Txartelarekin 350 pezeta.



■ **TRIAL TXAPELKETA UDALAN**

Arrasate Motozale elkarteak antolatuta trial txapelketa izango da domekan, goizeko 10etan hasita Udalan. 40 parte hartzaile izango dira eta horien artean bi arrasatear: Ander Landaluze eta Jose Angel Zubiarrain. Ibilbideak ez du iazkoaren ondoan aldaketa handirik izango. Proba Euskadiko txapelketarako puntuagarria da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 31

• Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Larunbata 1

• Gauko 10ak arte: Irizar. Erguin.
• Gauz: Mozos. Bergara.

Igandea 2

• Gauko 10ak arte: Amezua. Santamaina.
• Gauz: Mozos. Bergara.

Astelehena 3

• Gauko 10ak arte: Ruiz. Maala.
• Gauz: Camacho. Bergara.

Asteartea 4

• Gauko 10ak arte: Morales. San Andres.
• Gauz: Puy. Bergara.

Asteazkena 5

• Gauko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
• Gauz: Guallar. Bergara.

Osteguna 6

• Gauko 10ak arte: Español. Iturriotz.
• Gauz: Estella. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
Iguatorioa 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 79 39 00
(emakumeak) 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 76 55 76

DYA

Antzuola 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 77 03 46
• Espezialitateak 77 05 78
77 12 64
Oñati 78 08 52
Eskoriatza 79 98 58
Aretxabaleta 79 74 58
Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 78 04 11
Bergara 76 14 69
Arrasate 79 14 39
Aretxabaleta 79 10 52
Eskoriatza 088

Ertzaintza

Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 79 78 44
. 79 76 78

Garraioak

Taxiak 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia

Monteron 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 79 58 77

DUINTASUNARI EPAIKETA

Harrigarria benetan HBren Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa politikoa. Harrigarria benetan azken 20 urteetan plazaratutako soluzio bide demokratiko bakarra defendatzeagatik izatea. Harrigarria benetan hirugarren milenioaren atarian, bake proposamen bat plazaratzeagatik epaituak izatea. Kolonialismoaren normalizazioa Euskal Herrian ezartzea dute helburu nagusia, zeinek Euskal Herriko herria dituen eskubide propio guztiak zapaltzeko eta ukatzeko, Espainiak eta espainiarrek duten eskubidea nahi dute bermatu...

Eskubide demokratiko gabeko espainiar demokrazia honen muina, azken bi hamarkadetan ezagututako trantsizio demokratikoan datza. Frankismoaren hereditentzia hain zama handia izanez, klase politiko berriak frankismoaren hereditentzia horrekin akordioa gauzatu zuen, frankistek trantsizioari ezarritako demokratizazioaren eta askatasunaren mugak eta baldintzak onartuz.

Horrela, boterearen monopolioa erabiliz eta komunikabide sozialak guztiz antidemokratikoki bideratuz, frankismoaren garaian izan zen *gehiengo isila*, *gehiengo demokratiko* bihurtu zuten. Beranduago, demokraziari irakurketa barregarria eginez, gehiengoaren

izenean disidentzia minoritarioaren eskubideak ukatu zituzten. Berriz ere, espainiar nazioaren gehiengoaren izenean demografikoki gutxiago diren nazionalitateen oinarritzko eskubideak ukatu zituzten. Azkenean, demokraziaren izenean, erresistentzia eta disidentziaren aurkako satanizazio prozesu inkisitoriala bideratu dute. Testuinguru honetan, Ermua-Las Ventas-ko izpirituak boterearen aldeko komunikabideen media guztiak artikulatuz, frankismoaren hereditentziarekin loturik dauden guztiak eta aldaketaren aurkako guztiak mobilizatu nahi dituzte.


Horrela, espainiar konstituzioak zenbait errebindikazio demokratiko ilegaltasunean ezarri bazituen ere, egun Madrilan dugun epai-

ketak, Euskal Herriaren proiektuaren aldeko *iritziak* ilegal bihurtu nahi ditu. Horregatik, duintasunari egindako epaiketa dugu Madrilan. Eta arazoa ez da euskalduna edo espainiarra soilik, Europako herrien etorkizun demokratikoa ilundu egiten duelako. Ez da kasualitatea Britainia Handiko gobernuak Irlandan erabakitako bidea eta Espainiako gobernuak Euskal Herrian hartutakoa kontrajarriak izatea. Espainiako gobernuak daraman ildoak Europako estatu gabeko nazioen eskubideak oztopatzeke jarrera adierazten du. Beti bezala, hispanitatearen Espainia hori, humanitate errearen aurka eta indarrean ezarritako zapaltzaileen alde dago.

Antxon Mendizabal,
Sagra Lopez

"Gida 98" gertatzen

Xabier Ayastuy 24 urteko arrasatearra duzue argazkiko. ARKOK urtero argitaratzen duen Gidako komertzial lana egingo du Arrasaten, Irantzuri laguntza emanaz. Sarri sarri ikusiko duzue dendaz denda ondorengo egunetan.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22


Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Ehiza kirola da?



Asier Lizarriturri
(23 urte)
Ikaslea

Ez. Animaliak eta ehiztariak ez daude baldintza berdinetan, ehiztariak eskopetak dituztelako. Gainera zikindu egiten dute ingurunea. Askok lurrera botatzen dute kartu-
txoak horretarako prestatutako lekuetara bota beharrean.



Jon Odriozola
(21 urte)
Ikaslea

Bai, horrelaxe kontsideratuta dago. Nik ez daukat zale-
tasunik, baina bakoitzak ikusi beharko du.



Cipriano Hernandez
(61 urte)
Jubilatua

Nik ez dut horretaz asko ulertzen, baina uste dut baietz. Nire jaioterrian behintzat kirola kontsideratzen dute. Plater, usakume edo erbi tiraketak ez al dira bada kirolak?



Maria Iglesias
(68 urte)
Jubilatua

Animaliek ere bizitzeko eskubidea dute. Dena den, untxi bat harrapatu duenari eskopeta kentzen zaio eta gero handiek Extremadurako kotoetan nahi duten guztia ehizatzen dute eta horretara ere ez dago eskubiderik.




June Fernandez
19 urte
Ikaslea

Ez da kirola, hori hilketa bat da.



Mari Mar Bedia
(33 urte)
Langabetua

Beharra dagoenean animalia bat hiltzea ondo dago, baina ez bada beharrezkoa ez. Ez da kirola nire ustez.



Andres Bengoa
(64 urte)
Jubilatua

Kirola da eta ez zait gaizki iruditzen ehizan egitea.



Katy Pascual
(46 urte)
Langilea

Mota guztietako iritziak errespetatzen ditut baina pertsonalki ez zait ehiza gustatzen.



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE



IBABE

GARAJEA

Salmenta eta zerbitzua

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

USTEAK USTE

Burtsatik poltsara

Dantzan egon da mundua astean, eta nik behintzat ez dut musikaren eraginik igerri. Izua adierazten zuten aurpegiak, begizuloetatik irten ez irten begi asko, zalapartaka jendea, zoroak letxe eskuak buruan igurtziz, izerdi hotzez gehienak, ikusten zutena irentsi ezinda moduan. Munduaren bukaera ematen zuen. Ez zen amets-gaiztoa, telebistak programazioa eten eta informatibo berezi batean erakutsi zigan aurreko dena, mundu osoko burtsen irudiak eskainiz. **“Ikusten duzu hori? -esan nion emazteari- kristoren garrantzia izan behar du eta gu hemen sofán etzanda, oraindik fregatua egin barik”.** Barre egin genuen, zer gehiago egin genezakeen bi gizarajok munduko ekonomia pikutara zihoala ematen zuen bitartean? **Hurrengo egunean, tabernan kafea hartzen nengoela, bezperako zoroak txaloka ikusi nituen, arnasa trankil hartzen. Ez zidan aparteko lasaitasunik eragin, orduan nentorren eta dendatik poltsa beteta. Poltsikoa, berriz, erdi hutsik.**

Beñardo Kortabarria



Azaroak 2, hilen eguna

Juan Jose Goenaga

Norbaitek esana da eliza dela hildakoak ongien zaintzen eta tratatzen dituen. Gaisoaldian inguratu, hiltzeko preparatzen lagundu sakramentuaz, hildakoan elizara eraman, eukaristia ospatu, otoitz egin eta otoitz giroan lurperatu. Eta dohainik.

Denok bat gatoz bizi izaten ikastea inportantea dela. Hogeitamar urtetan hortan jardun genuen, eta gaur egun ere hortan dabilta urte horietakoak. Bizitzeko ikasten jardun, eta konturatzerako hiltzen ikasten hasi behar, inon erakusten ez den asignatura, eta lehengoa bezain inportantea.

Aspaldi baziren hiltzen ikasiz joateko liburuskak eta ihardunaldiak. Euskaraz bat ezagutzen dut, “Ontsa hiltzeko bidea”, Iparraldeko apaiz euskaldun batek idatzia. Latinez ere bazen liburu asko “Ars moriendi” deituak. Gure arbasoek bazekiten hori inportantea zela.

Nire baitan uste dut heriotzari aurrez aurre eta sarritan begiratuko bagenio, gure artean den hainbeste “depre”, “neurosi” eta buruko beste gai-

sotasun asko bere onera etorriko litzakeela. Ez dugu pentsatzen beldurra sartzen zailgulako, eta beldurra kontrolatzen ez denean ondorio txarrak ekartzen ditu. Hau dena sikiatren baimenarekin idazten ausartzen naiz.

Heriotza eta hilak ezkutatzen dituen gizartea eta kultura ez daude beren izaerarekin bakean, eta kultura horri asko falta zaio giza-kultura izateko.

Lehengo zaharrek, askok, ez denek, ondo zekiten bizitzaren dimentsioetako bat hiltzen ikastea zela, eta horren aurrean jartzea fedez, edota ez fedez.

Aurrekoa idatzi dut aste honetan bertan honako hau gertatu zaidalako: Goiz batez deitu ninduten ospitalera. Gizon edadetu bat gaisorik zegoen ohean, eta berak seni-

tartekoei esan zien lasai eta trankil: “Elizakoak hartu nahi ditut”.

Etzekoek deitu eta joan nintzen. Irrifarrez hartu ninduen gaisoak apaiza nintzela esan ziotenean, eta zertara joan nintzen aditzera eman ziotenean keinuz gor samarra zen eta.

Elizakoak hartzeko, gaisoen igurtzia, hain zuzen ere, eta ondo ospatzeko, belarrietako aparatoa jartzeko eskatu zien, horrela otoitza ondo jarrai zezan.

Egin genuen ospakizuna etzekoak inguruan zeudela eta bukatzean esan zidan: “Eske-rrik asko Juanjoxe”.

Geroxeago jakin nuen artzai ibilia zela hor mendietan e.a.



Gaur bertan (97-10-24) berriz ikustera joan naiz goizez, eta irrifarrez hartu nau, eta pozik zegoen.

“Horrek bai dakiela hiltzeko preparatzen” esan diot nire buruari, eta neure buruari opa izan diot horrelakoxe azkenaldia izatea. Hori da giza-kiak berea duen heriotzari aurre egitea fedez.

Enrike du izena gaisoak.

Juan Jose Goenaga, San Andresko parrokoa da.

“Bazekiten bizitzako dimentsioetako bat hiltzen ikastea zela”



ILEAPAINDEGIA



AUTOMAKILAJE IKASTAROA

- Talde txikiak (3 pertsona)
- Ordutegia: 7etatik 9etara
- Egunak: astearte eta astezkena.
- AZAROAN.

Gorbea kalea 2.zkia,
(Eroski handiaren parean)
ARETXABALETA
Egin zure erretserba
77 09 44 telefonoan.

ZIRT-ZART ZOZKETA

Parte hartu gure zozketan eta automakilaje ikastarora debalde joango zara!

Ekarri txartel hau:
ARRASATE PRESSERA (Otalora
Lizentziatua, 31).
Irabazlearen izena ARRASATE PRESSen
argitaratuta agertuko da.

Izen abizenak:

Helbidea:

Telefona:

astea bi hitzetan

■ Musika

hamabostaldiaren hasiera
Gesalibarko ospitaletako mendeurrenaren ekitaldien barruan musika hamabostaldiaren hasiera pasa den asteburuan. Goikobaluk eman zion hasiera, ostiralean San Frantzisko parrokian eskainitako kontzertuarekin. Larunbatean bi zita izan ziren: batetik Easo abesbatzaren kaperagregorianista Aita Mennin; bestetik, Juan Carlos Irizar ofatiarraren *Barnetik* diskoaren aurkezpena Amaia antzokian. Astelehenean Rusia Ortodoxa abesbatzak eman zion jarraipena hamabostaldiari.

■ Ikerlan arrantza munduaren teknologian

Ikerlanek hitzarmena sinatu zuen ostegunean arrantza sektorean lan egiten duen Bizkaiako Azti Instituto tek-

nologikoarekin. Hitzarmenaren helburua esperientzia industrialak eta ikerketa eta garapen proiektu ezberdinak bultzatzea. Hitzarmenaren arabera, pertsonal, ekipa eta azpiegituren elkartrukea egingo da bi erakundeen artean. Hiru urte dela hasi zen Ikerlanen eta Aztiaren arteko elkarlana, eta elkarlan horren ondorioetarik bat arrantzen transformazio prozesua optimizatzen Ikerlanen garatu den softwarea litzateke.

■ Epaiketaren aurkako protesta ekitaldia

"Adierazpen askatasuna" lemapean Arrasateko Herri Batasunak deituta enkartelada egin zen Portaloian ostiral iluntzean. Ekintza HBko mahai nazionalaren epaiketaren aurkako protesta modura antolatu zen.

■ Internazionalismoa non nahi

Che Guevara hil zuteneko 25. urteurrena dela eta, joan den astean hitzaldia eta erakusketa izan ziren Monterronen, Komite Internazionalistak antolatuta: Peruko preso politikoen egoera batetik; eta Che-ri buruzko argazki erakusketa bestetik. Aste honetan, berriz, giro bereko ekintzak jorratu dira: asteartean Jai Zale tabernan hitzaldia, bideo emanaldia eta "Che siempre" liburua-aren aurkezpena egin ziren, eta ordura arte erakusketa ere bertan egon zen jarrita. Asteartean bertan, Bake eta Elkartasunerako Fundazioak Guatemalaren gaineko hitzaldia eskaini zuen Monterronen eta baita domekara arte zabalik egongo den herri erresistentzia gai duen erakusketa zabaldu ere.



ARETXABALETAKO BATZOKIA KISKALITA

Ostiraletik zapaturako gauean su eman zioten Aretxabaletako batzokiari. Eraso zela eta, erreketak gaitzesteko dokumentua aurkeztu zen udalean. HBk ez zuen sinatu. Hori ikusita, PSOE-EEK gobernua uztea erabaki zuen, eta gainontzekoek astebeteko epea jarri dute HB kanporatu edo ez erabakitzeko.

“ Lantokien barneko eta kanpoko harremanak euskalduntzea da Hizkuntza Politikarako Sailordetzak burutu duen egitasmoaren helburua. Eguneroko lanean euskaraz egitea da helburu, ez langileak euskalduntzea besterik gabe. Horretarako, jakina, ezinbestekoa da lantokiko guztien adostasuna, onarpena eta partaidetza.

Guztien onarpena eta bakes duen egitasmo izateaz gainera, ezinbestekoa da lantoki bakoitzari dagokion neurrikoa egitea ere. Enpresaren ezaugarriak egokitutako plangintza ez bada ez baitu fruiturik emango.

Elay eta Ikerlan izan dira lehenak metodologia-aren egokitasunaren erakusgarria lanari moldatzen. Eta euskarak gora egin du, bai ahozko harremanetan, bai idatzizkoetan. Horko emaitzak ikusi ondoren, CAF, MCC-Zerbitzuak, Arlan, Labein, Kutxa, Fagor Ederlan eta beste zenbait enpresetan ekin zaio bide beretik.

Euskara erabiltzearen apustua lan munduan irabazi nahi baldin bada, ordea, adostasun eta gogo handiz eta oso tentuz eta ziur egin behar dira urratsak”.

MIKEL ATXAGA

Deia

1997-10-23

Obstetriziaz eta Ginekologiako kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

EXTRA

Deba Garaiko Kazeta

Asteartero, ostegunero eta larunbatero kioskoetan salgai.

Nafarroa etorbidea, 23 • 218 postakutxatila
Tel.: 79 82 68 • Faxa: 79 43 03

Aldaketa ugari Kontzeziñon

Errepidea lekuz aldatu eta zumardia egingo da

Hirigintza eta obra batzordeak bere onarpenera eman dio LKSk landutako Kontzeziñoko urbanizazio proiektuari. Proiektu horren arabera, San Andres auzoa eta erdigunea bateratuko dituen errepide berria egingo da. Bideak Deba errekararen norabideari jarraituko dio; beraz, gaur egun erreka aldamenen dauten pabilioi industrialak bota egingo dira. Errepidea errekarantz bazterterakoan, leku gehiago geratuko da libre, eta zumardi bat egiteko aprobetxatuko da. Horretaz gain, San Andres auzoa eta Arrasate pasealekua lotuko dituzten bi eskailera egingo dira. Azken kale horretan, autoak aparkatzeko lekua utziko da San Viatorreraino.

Momentuz, desbideraketa elektriko bat bukatzeko zain daude eraikitzaileak, obrek in hasteko. Seguraski, ondorengo egunotan botako dira erreka inguruko tailerrak eta errepide berria egiteari ekingo zaio. Beste obra guz-



Kontzeziñoko itxura guztiz aldatuko da datorren urtean.

tiak, Kontzeziñoko etxebizitzekin batera egingo dira. Dena bukatzeko datorren urte osoa beharko dela uste da.

Moldaketa guztiak egin eta gero, AHIZKE parean

errotanda bat egitearen aukera aurrikusi da. Oraindik onartu gabe dago, baina errotanda horrek, erdigunea, San Andres eta Zerrajerako urbanizazioa lotuko lituzke.

Jaiotzak

- Izar Carmona Iñurrategi. Urriaren 8an.
- Ibai Rodriguez Ruiz. 17an.
- Nagore Gallego Sopo. 17an.
- Ander Raso Delgado. 21ean.
- Julen Garzia Errasti. 23an.
- Jhudit Sagasta Escobar. 23an.

Ezkontzak

- Dionisio Caballero Garcia eta Yolanda Vitienes Saiz. Urriaren 11an. Zibilez.
- Francisco Javier Mateos Pavon eta Isabel Escudero Dominguez. 20an. Zibilez.
- Ignazio Fernandez Carmona eta Marta Martinez Gonzalez. 25ean. Zibilez.
- Paul Ortiz Korta eta Isabel de San Justo Payo. 25ean. Elizaz.

Hildakoak

- Manuela Fagundez Beneite. 89 urte. Urriaren 21ean.
- Maria Hernandez Sanchez. 78 urte. 26an.

Laubiden kontzesioak egiteko baldintzak ezarri dira

Erdialdean bizi eta garajerik ez duten lagunek lehenasuna izango dute Laubideko aparkalekuan kontzesio bat lortzeko orduan. Preferentzia izango duen hurrengo taldea, garajerik ez, baina erdialdean komertzio baten jabeek osatzen dute. Horien ostean, garagabeko arrasatearrek lortu dezakete kontzesioa. Azkenik, nahiz eta garajea izan, edo-

zeinek har dezake aparkalekua baina arrasatearrek lehenasuna izango dute kanpotarren aurrean.

Kontzesio sistema datorren urtean ipiniko da indarrean eta aparkaleku publikoaren 60 plaza alokatuko dira. Kontzesioak urtebeteko iraupena izango dute. Urte osorako aparkalekuak 60.000 pta. balio du eta urte erdirako, 30.000 pta.

Mankomunitatearen hileroko bilera Antzuolan egin zen

Mankomunitateak hileroko bilera burutu zuen astezkenan Antzuolan. Bertan hartutako erabakien artean, garrantzitsuenak aipatuko ditugu. Hasteko, Epeleko barruko bidea konpontzeko proiektua onartu zen, beraz urrengo egunotan lehiaketa publikora aterako da. Bestalde, biltegian azpi produktu industrialak eta dekomisoak erretiratzeko lana,

Seberia Bilbaina enpresari adjudikatu zitzaion. Bukatzeko aipatu Lantegi Eskolako laugarren proiekturako pertsonal auxilierra eta irakasle goa kontratatu zela. Zuzendaria, aparejadorea, administratiboa eta zortzi monitore kontratatu ziren, datozen bi urteotan Lantegi Eskolako tailerrak eramateko. Eskolak 52 ikasle izango ditu.

Arazorik sortzen ez bada Udalak ez ditu tabernak itxiaraziko

Orain dela gutxi Arrasateko Ostalarien Elkarteko ordezkariak Jose Mari Loiti alkatearekin bildu ziren, sektore horretako ordutegi berriari buruz berba egiteko. Tabernariak ez zuten bileraren inguruko ezer garbirik esan nahi izan, baina alkateak ez zuen eragozpenik izan Udalak ordutegiaren murrizketaren inguruan hartu duen jarreraz berba egiteko: "Udalak ez du Ertzaintza tabernak ixtera bidaliko. Dena den, arazorik edo kezarik sortuko balitz, legea bete beharko da. Bestalde, tabernariak proposatuko dute ordutegi bereziko hamar egunak nola antolatu. Tabernariekin harremanetan jarraituko dugu, gauzak nola



Arrasateko tabernariak atzo bildu ziren ordutegiei buruz berba egiteko.


doazen aztertzeko".

Atzo Arrasateko tabernari guztiak bilera izan zuten Monterronen. Bilera infor-

matibo horretan, alkatearekin lortutako akordioaren berri eman zen. Tabernarien elkarretako ordezkaria den Foruen

tabernako jabeak, horrela laburtzen zuen tabernariaren eginbeharra: "Kontuz ibili eta ordutegia errespetatu behar dugu. Tabernari bakoitzak 2:30ak 3ak aldera ixteko erantzunkizuna hartu behar du eta ez orain arte egin den bezala, askoz ere beranduago itxi".

Gipuzkoako Ostalaritza Elkartek, azaroko ostiral baten Gipuzkoako establezimendu guztiak egun berean ixteko deialdia luzatu du. Arrasateko bileran gai hau planteatu zen Arrasateko tabernariaren iritzia jasotzeko asmoz. Forueneko jabeak dioenez "zaila izango da horrelako lanuztea egitea, Gipuzkoa osoan antolatu behar delako".



**ZUZEN ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**

SMA Armeko

Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

Euskara elkarteek bidez salduko dira 500 pta.ko prezioan

Bailarako jatetxeen %95a euskara elkarteek argitaratutako Jatetxeen Gidan


Debagunek argitaratutako Deba Garaiko jatetxeen gidaren aurkezpena egin zen asteazken goizean Monterronen. Gidan Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, eta Oñatiko 100 jatetxe biltzen dira, bailaran dauden %95a gutxi gorabehera.

Jatetxe bakoitzaren izena, helbidea, telefona, eta sukaldariaren berri ematez gain, ezaugarriak ere agertzen dira gidan: espezialitateak, zer nolako otorduetarako den egokia, zenbat bezero har ditzakeen, aparkalekurik duen edo ez, ordutegia, jai egunak eta oporrak noiz dituen, menuaren zenbatekoa eta bakoitzaren zehaztasuna. Hortik aparte jatetxe bakoitzak eskaintako errezeta bat ere agertzen du gidak, sinpleenetik hasita osatuena.

ETXEX ETXEO BANAKETA

Euskara elkarteetan lehenik eta etxex-etxe gero, horrela banatuko dira argitaratu diren 5.000 jatetxe gidak, 500 pezetako salneurrian. Behar bezalako banaketa egiteko konpromezua azaldu zuten Debaguneko arduradunek.

Jatetxeen gida *Euskara Kartara!* kanpainaren lehen emaitza besterik ez da. Izan ere, bailarako jatetxe guztiei eman zaie Gidan agertzeko aukera, dohainik eta baldintza bakarra jarrita: beraien kartak euskaraz ere eskaintzea. Kartak euskarazeko konpromezua hartu duten jatetxeek kanpainaren irudia eta leloa, *Euskara Kartara!* eramango duen logotipoa




Deba Garaiko 100 jatetxe agertzen dira Jatetxeen Gidan.

izango dute atean. Beraz, gidaren ondorengo bigarren lan bat ere bada: karten itzulpenen jarraipena egitea. Bigarren fase horretan bezeroen lanaren premia ere aipatu zen, Gidan agertzen den jatetxeren batera joanez gero kartak eta jakiak euskaraz eskatzeko.

Jose Angel Mikeok, Debaguneko lehendakariak, aurkezpenean esan zuenez, "Jatetxeen Gida, gida turistiko bat izateaz gain, errezeta liburua, hiztegia, eta jatetxeen aldetik dagoen konpromezua adierazten duen zerbait ere bada".

HIZTEGI ERABILGARRIA

Gidan hiztegi bat ere bada jatetxeetako menuak jasotzeko abiatu, janari-izenak bildu, datu base bat osatu eta itzulpenak eginez osatu zena. Irizpide bakarra hiztegia egiterakoan itzulpenaren ulergarritasuna, gero erabiltzeko modukoa izan dadin. Horregatik bertako lexikoaren aldeko apustua egin da. Menuak aldatu egiten direnez, hemendik aurrera jatetxeetakoek euskara zerbitzuetara edo euskara elkarteetara jo beharko dute kartak berrikerakoan.



Jatetxeek zeren aldeko apustua egin duzue?

Beno, konpromezu bat hartzea izan da. Orain arte jatetxeetakoak apur bat lokartuta moduan egon gara eta ez da euskararen bultzadarak gertatu geure aldetik. Oso ondo dago euskaraz ez dakienak edo kanpotik datorrenak, turismo aldetik bultzada egin nahi denez, aukera izatea menua bere hizkuntzan jasotzeko. Dena den, konturatu behar dugu Euskal Herrian gaudela eta geuri dagokigula euskarari lehentasuna ematea, geure hizkuntza pittin bat zaindu beharra dugula eta zaindu dezakegula.

Alberto Elorza,
Oñatiko Zelai Zabala
jatetxeakoa.

ERRAMILETE ERRAMILETE, AEK ETA PORTUGALETE


AEK egunean izan zen Arrasateko ordezkariarik. Erdu AEK euskaltegiak autobuskada bat bidali zuen Portugaletera eta beste asko autoz joan zen. Arrasatetik joandako lagun batzuk esan digutenez, ez zuten Portugaleteko zubia ikusteko denborarik izan. Itxuran, nahikoa izan zuten jai guneko txoznak bisitatzearekin.



JULEN, MUTIKOTERIK PREZIATUENA

Aramaixoko Errasti familiakoek egundoko poza hartu zuten urriaren 23an, Julen Garzia Errasti txikitxoaren jaiotzarekin. Errastitarak, aita kenduta noski, emakumeak dira eta ondo-

rengo belaunaldia ere bide beretik zihoan Julen jaiote arte. Argazkian ikusten denez, Alazne eta Garazi, bere bi arrebak, familiako txikitxoena zaintzeko prest daude. Familia osoaren partetik, zorionak gurasoei!



MECA
GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000


24 orduko zerbitzua 365 egunetan

MECA



LEHEN JAUNARTZERAKO DOTORE

Aingerutxoak ziruditen joan den domekan lehen jaunartzea egin zuten neska mutilek. Guztira, 33 gaztetxo elkartu ziren San Frantzisko elizan meza berezia ospatzeko. Ostean opari galantak jasoko zituen batek baino gehiagok.



ARKO GUNE TURISTIKOA


Ez pentsa argazkikoa Mondrasportera gonbidatutako igeriketa taldea denik. Saintes herri frantziarreko ikasleak dira ARKO bisitatzen. Urtero bezala, Institutoak ikasle trukaketa egin zuen instituto frantziar batekin eta Arrasatekoak Saintesera joan ziren. Han ikusiko zuten telebistarik arrasatearrek?



PERRITXIKUTAN SEBERORA

A ze nolako sorpresa hartu zuen Fray Rufinok San Frantziskotik irten eta sekulako perretxiko erakusketarekin topatu zenean. San Viatorreko ikasleak ziren VII. Perretxiko lehiaketa-

ko erakusketarekin. Bertaraino gerturatutako publikoa bezala, Fray Rufino ere denbora pasa ibili zen perretxiko mota ezberdinak aztertzen.



UNITED COLORS
OF BENETTON.

MAALAKO ERRABALA, 13 • ARRASATE



Fatxadako harmarria gorde egíngo da eta "oficinas" dioen lekuan "Hotel" jarriko dute.

Mondragon hotela Sanjuanetarako zabalik

Joan den astean hasi ziren Zerrajerako bulegoen eraikin zaharra hotel bihurtuko duten obrak. Hotel berria turismo-rako azpiegituretan Deba Garaiak dituen gabezieta bat estaltzeko egin da. 56 ohe izango ditu eta bultzatzaileen kalkuloen arabera, egunero gutxienez erdia betetzeko esperantza daukate. Sanjuanetarako aurri-kusi da inaugurazioa.

Seguru asko Zerrajerako bulego zaharren eraikina zertarako izango den jakiteak, zur eta lur utziko zuen bat baino gehiago. Azken urteetan ez dira gutxi izan eraikinari izendatu zaizkion erabilerrak, gehiago zenbaitzuren amets proiektu sendo baino. Zenbat aldiz entzun ote den, Arrasate Musikalentzat pri-

merakoa izan zitekeela, edo bertan herriko kultur taldeendako lokalak egokitzea ez legokeela batere gaizki. Egia da herriko talde askok zeukala Zaldibarko etxea begiz jota.

Etxea ona da, oso ona. Horretan batere dudarik ez. Eta dagoen tokia, Zaldibar, zer esanik ez, herriaren erdian baina berezko nortasuna duen ingurua. Ez da harritzekoa

UCEMen bulegoek hainbeste zaletu izatea.

Amets haiek egi bihurtzeko traba nabarmena; etxea ez zen Udalarena, askok pentsatzen zuen bezala, pribatua baizik. Jabeak libre zeukan nahi zuenari saltzea, hau da, eskatutako diru kopurua mahai gainean jarriko zionari.

Azkenean hotela izango da. "Hotel Alto Deba S.L." izeneko enpresak erosi du erai-

kina bertan hotela egiteko asmoz.

MERKATUA BADAGO

Behar ote du hotel berria Arrasatek? Posible al da aurrera ateratzea? "Hotel Alto Deba S.L." enpresa sortu dutenek ez daukate horretan batere dudarik.

Zortzi urte direla, Arrasateko Udalak azterketa egin zuen laneko turismoa atenditzeko herriak zituen zerbitzu eta gabeziak ezagutzeko, lo egiteko eta jateko eskaintza batez ere. Azterketak ondorio garbiak utzi zituen: bailarako jarduerak ekonomikoak bisitari kopuru handia sortzen du eta ez zegoen turismo mota horri modu egokian erantzuteko azpiegiturarik. Enpresetara etortzen ziren bisitari gehienek Gasteiz, Donostia edo Eibarren hartzen zuten ostatua.

Turismoaren berraurkuntzak bultzatuta, azken urteetan hotel txikiak egin dira Deba Garaian: Arrasate Hotela lehenbizi, Elgeta Hotela pare bat urte direla, Gatzagako Gaztainuzketa baserri ostatuak iaz, Bergaran ere hotela zabaldu berria... Orain Mondragon hotela etorriko da, eta ezin ahaztu Gatzagan Soran jauregia hotel bihurtzeko lanetan dabiltzala.

Gaur egun Arrasaten bertan lotan geratzeko hotel txiki bat (Arrasate hotela), bi ostatu (Musakola eta Txirrita), eta Urizar pentsioa dade. Mondragon hotel berria bultzatu duten enpresarien ustez, gaur egungo eskaintza ez da nahikoa eta badago merkata hotel berriarentzat. Burutu duten merkatu azterketan horrela ikusi dute.

UNIBERTSITATEAK TURISMOA EKARRIKO DU

Azken urteetan Mankomunitatetik eskualdean turismoa



Barrutik erabat husten ari dira eraikina, gero guztia berria jasotzeko.

bultzatu eta azpiegiturak sustatzeko egiten ari den lanari esker, poliki-poliki jendea konturatzen hasi da Deba Garaian turismoa garatu barik dagoen potentzialitate handiko sektorea dela. Kooperati-

bak, batez ere, eta beste enpresa guztiak hor daude. Industria jardueran bisitari asko izan ohi da egunero. Arantzazu ere hor dago, urtean milaka bisitari jasotzen dituela. Merkataritza mailan ondo horni-

tua dago eskualdea eta bisitan etortzen diren komertzialak edo bihurtzeko gero eta gehiago dira. Turismo industrial edo ekonomikoa eta turismo erlijiosoa, momentuz bi ardatz nagusiak.

Denborarekin gure begiek turismorako aukera gehiago ezagutuko dituzte: Urkulu ingurua, Ulibarriko urtegia, Gatzagako proiektua, Lezetxiki, Oñatiko Udalak turismorako moldatuko duen Arrikruz leize zuloa zatia, mendia, eraikinak... Joan den ikasturtean jarri zen martxan eskualdean Turismo Ekin-tzetarako Zentrua eta urte gu-

Publikoari begira jatetxea, terrazadun kafetegia eta enpresa bilerak burutzeko areto bereziak izango ditu.



menago, batez ere Europa eta Ameriketako beste unibertsitate batzurekin dituen lankidetzaren hitzarmenak kontuan hartzen badira. Unibertsitateak ikasle, guraso, irakasle eta adituen joan-etorriak eragingo ditu eta horiekin ere pentsatu dute hotel berriaren bultzatzaileek.

DATUAK ETA EKIPAMENDUA

Mondragon hotela 2 edo 3 izarrekoa izango da, etxearen egiturak berak eta izar kopuruari dagozkion tarifak behartuta. Ez luke zentzu handirik izango lau izarreko hotel batek Arrasaten, besteak beste pre-

zio altuegiak izan beharko lituzkeelako. Jabeek 7.000 edo 8.000 Pta. jarri nahi dute gaua pasatzeko batz beste-ko prezioa.

Halere, prestakuntza mailan lau izarreko hotelen parean egongo ei da hotel berria zenbait arlotan. Logeletan adibidez, enpresa gizon edo atzeritarrek behar dituzten guztiak egongo dira: satelite bidezko telebista munduko osoko kanalak jaso ahal izateko, faxa eta baita internet ere, mundu osoko berri izan eta edozein lekura edozein mezu gelatik bertatik bidali edo jaso ahal izateko, eta Lau Bideko etxeetan 24 autorendako par-

king pribatua.

Lau solairutan banatuta 2.300 metro karratu izango ditu hotelak. 31 logela, horietatik 21 bikoitzak, 8 bakarkakoak, beste bat elbarrituentzat egokitua, gehi bi suite. Guztira 56 ohe. Elbarrituendako egokituta egongo dira, logelaz gain, bai bainuak eta baita sarbidea ere (aurrealdeko eskailerak direla eta, sarbide berezia egokituko da elbarrituentzat atzealdetik).

Hotela 400 milioi pezetan inguruko inbertsioa behar izango du eta 20 lanpostu berri sortuko ditu.

JENDEARENTZAT ZABALIK

Hotelaren zerbitzuak ez dira bakarrik hotelean daudenentzat izango. Jatetxeak 100 lagunetik gora hartu ahal izango ditu eta edozein joan ahal izango da bertara bazkaldu edota afaltzera. Eztei eta bestelako banketeak ere atendituko dituzte.

Luxuzko kafetegia lurra- ren mailan kokatuko da, kanpoko jendearentzat zabalik egongo da eta kanpoaldean terraza izango du. Zaldibarrera arratsaldean umeekin joaten diren guraso eta zaintzaileak hoteleko kafetegiko terrazan imajinatzea ez da zaila.

Bestalde, enpresa eta erakunde jarduerari begira, enpresa bilerak burutzeko saloi bereziak izango ditu hotelak, eta konbentzioak hartzeko prestatuta egongo da.

Patxi Montero

Hotela 400 milioi pezetan inguruko inbertsioa behar izango du eta 20 lanpostu berri sortuko ditu.

Hotela berria bultzatu duten enpresarien ustez gaur egungo eskaintza ez da nahikoa eta badago merkatua hotela berriarentzat. Burutu duten merkatu azterketan halaxe ikusi dute.

txi barru igerriko da bere lana.

Eta ez da ahaztu behar sortu berria den Mondragon Unibertsitateak ere turismoa erakarriko duela neurri batean, beharbada modu apalean hasieran, baina gero eta nabar-

BK
ARRASATE

FOTOKOPIAK: Z/B

FOTOKOPIAK: KOLOR

2.5 pta.rik aurrera

69 pta.rik aurrera

Olarte, 13 • ARRASATE • Tel.: 79 79 06



Ihardunaldi beltza izan da laugarrena Zaldibar txapelketan. Inoiz baino iskanbila gehiago eman da eta inoiz baina zigor zorrotzagoak jarri behar izan dituzte antolatzaileek.

Arazoa nor dago, orain konponbidea bilatu behar eta hori antolatzaileen eta jokalarien eskutan dago.

Ihardunaldi iskanbilatsua Zaldibarren

Laburrak

■ ANTOLATZAILEAK KEZKATUTA

“Egurra ematera eta iskanbila sortzera etortzen da hainbat talde Zaldibarrera. Horren aurka neurriak hartzeko gertu gaude” diote antolatzaileek azken ihardunaldian gertatutakoa baloratu ondoren. Jokalarien eta epaileen artean arazoak eta oraindik lehen faseko lau ihardunaldi baino ez dira jokatu. Egoera ez bada hobetzen Zaldibar txapelketa borrokarako eszenatoki bihur daiteke. Hori arriskutsua bezain ezkorra izan daiteke lagun arteko Zaldibar txapelketarako.

■ SEKULA BAINO ZIGOR GEHIAGO.

Rotor de bolbogrado eta Jey

Holigans taldeen arteko partiduko 5. minutuan izugarrizko iskanbila sortu zen arean. Jey Holigans taldeko Sergio Garcia ukabilkada bat eman zion Rotorreko Juan Pedro Caballeroi. Jeyko atezaina bakeak egitera joan eta biekin ostikaraka bukatu zuen. Une horretan antolakuntzak Juan Carlos Donoso kanporatzea erabaki zuen. Asteleheneko bileran berriz, txapelketako arduradunek lau partidurako zigortu dituzte Juan Carlos Donoso eta Sergio Garcia; birekin Caballero.

Pepelus eta Epeh taldeko partiduan, Epehk jarrera penagarria erakutsi zuenez, abisua eman diote.

Sobredosis de Claro eta Komando Alpagat norgehi-gokan Sobredosis taldeko

Jabier Rubialesek aurkari bat jotzeko asmoa azaldu zuenez, bi partiduko zigorra bete beharko du.

Txontxongilo eta Borrock roll: Azken taldekoek joan zen astean abisua jaso zuten, azken ihardunaldian espabilatu ez direnez, 10.000 pezetako fiantza galdu dute. Horrez gain taldeko Unai Lazkanok bi partiduko zigorra jaso du.

■ BALOIAK ZAINTEZKO DIRA

Lorategi eta Atletiko Celaya partiduan baloia errekarra joan zen. Errekak ez badu ur gehiegi eramaten jokalariek derri-gorrez joan behar dira jasotzera. Hori ez zuten zuzenean, AT Celaya taldekoek 10.000 pezetako fiantza galdu dute. Baloi bakoi-tzak 7.500 pezeta balio ditu.

■ IZEN ALDAKETA

Gaur arte Txontxongilo bezala ezagutu dugun taldea Estrella taberna deituko da hemendik aurrera.

■ EMAITZA HARRIGARRIAK

Azken ihardunaldian emaitza bat azpimarratu behar da beste guztien artean. Sokoakoak taldeak 27 eta 2 irabazi zion Nacexeri. 50 minututan 27 gol sartu zituzten, baina gehiago lortzeko aukera ere izan zutela esan dute jokalariek. Beste goleada batzuk: Koka Juniors taldeak Iluna tabernari sartutako 12-1 eta Ke oxtia-sek 11 eta 2 irabazi zion Onanierengeri. Bide batez ez da ahaztu behar Etxe Mobelek denboraldiko lehen partidua irabazi duela.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	4	4	0	0	22	7	8
Sokoakoak	4	3	1	0	37	5	7
Ke Oxtias	4	2	2	0	21	6	6
AC Surcos	4	3	0	1	18	8	6
Garaje Oscar	4	3	0	1	17	11	6
Tamagotxi	4	3	0	1	14	12	6
KK Jauri	4	3	0	1	9	8	6
Pipwhis	4	3	0	1	12	11	6
Jotakabau	4	2	1	1	12	9	5
Branka Taberna	4	2	1	1	16	11	5
Nuevo taberna	4	2	1	1	13	10	5
Gart Igamo	4	1	1	2	9	16	3
Ganbelas	4	1	0	3	9	12	2
Potrosorri	4	0	1	3	7	16	1
Leya	4	0	1	3	16	21	1
Onaniereng	4	0	1	3	8	28	1
Babajana Sexy	4	0	0	4	5	22	0
Nacex	4	0	0	4	6	41	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Zotz	4	4	0	0	15	3	8
Orlando Piratas	4	3	1	0	15	4	7
Pepelus	4	3	0	1	20	14	6
Irati STS	4	3	0	1	17	12	6
Jako al rey	4	3	0	1	20	17	6
Fraguel Gol	4	2	1	0	14	12	5
DA Iriztu	4	2	1	0	20	18	5
Arrogoi taberna	4	2	0	2	19	13	4
Jey Holigans	4	2	0	2	11	11	4
Lauterbrunnen	4	2	0	2	12	18	4
Betrayer	4	1	1	2	12	14	3
Komando alpargat	4	1	0	3	8	16	2
Rotor Bolb	4	1	0	3	12	10	2
Ainarexia	4	1	0	3	15	13	2
DKB	4	1	0	3	12	19	2
Epeh	4	1	0	3	9	14	2
Bukanak	4	1	0	3	12	24	2
Sobredosis de claro	4	1	0	3	9	20	2

Emaitzak

A taldea

Ke Oxtias 11 - Onaniereng 2
 Jotakabau 6 - Ganbelas 1
 Sokoakoak 27 - Nacex 2
 Babajana Sexy 0 - Garaje Oscar 6
 Argi Ibili 4 - Tamagotxi 1
 AC surcos 6 - Potrosorri 0
 Cartonajes Igamo 6 - Leya 5
 Pipwhis 0 - Branka taberna 8
 KKJauri 2 - Nuevo Taberna 0

B taldea

Pepelus 3 - Epeh 2
 Jey Holigans 5 - Rotor de Bolbogrado 4
 Kom. alpargat 0 - Sobredosis de claro 2
 Irati STS 3 - Bukanak 0
 Betrayer 3 - arrogoi taberna 8
 Orlando Piratas 4 - DKB 2
 Lauterbrunnen 5 - fraguel Gol 3
 Jako al rey 10 - D.A Iriztu 6
 Zotz 3 - Ainarexia 2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Totem	4	4	0	0	33	5	8
Estrella Taberna	4	4	0	0	19	7	8
AT Celaya	4	3	1	0	14	7	7
Koka Juniors	4	3	1	0	29	12	7
Aurrera Bolie	4	3	0	1	25	13	6
Naranja Mekanika	4	3	0	1	22	13	6
Lorategi Potroak	4	2	0	2	17	11	4
Aldibi	4	2	0	2	15	11	4
LOs Heredia	4	2	0	2	10	13	4
Aldapa taberna	4	2	0	2	14	17	4
Makai	4	2	0	2	11	23	4
Borrocc Roll	4	1	1	2	14	23	3
Kamasutra	4	0	2	2	12	17	2
Etxe Mobel	4	1	0	3	7	17	2
Iluna Taberna	4	1	0	3	7	22	2
Txeyenex	4	0	1	3	10	19	1
Insert Coin	4	0	0	4	10	21	0
Elisabeth	4	0	0	4	8	27	0



PARTIDU INTERESGARRIAK. Zapatuan Iturripen Totem eta Atletiko Celaya. Totem talde beteteranoak AT Celayako gazteak izango ditu arerio. Domekan Estrella tabernak eta Naranja Mekanikak jokatuko dute.

D taldea

Txantxongilo 3 - Borrocc Roll 2
 Aurrera bolie 9 - Makai 3
 Aldapa taberna 7 - Elisabeth 3
 Etxe Mobel 4 - Kamasutra 3
 Naranja mekanika 5 - aldibi 4
 Lorategi 2 - AT Celaya 3
 Txeyenex 2 - Los Heredia 4
 Totem 5 - Insert Coin 2
 Iluna Taberna 1 - koka Juniors 12

Aldibi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
 Tel.: 71 20 02

Hurrengo partiduak

Azaroak 1. Larunbata

Zaldibar

8.50 Kk jauri - Tomagotxi
 10.00 Orlando Piratas - Ainarexia
 11.00 Ganbelas - Onaniereng
 12.00 Lorategi - Koka juniors
 13.00 Iluna Taberna - Aldibi
 14.00 Jay Hiligans - DA Iriztu
 15.00 Etxe Mobel - Elisabeth
 16.00 Jako al rey - DKB
 17.00 Lauterbrunnen - Bukanak
 18.00 Aurrera bolie - Insert coin
 19.00 Ke Oxtias - argi ibili

Iturripe A

11.00 Sokoakoak - Leya
 12.00 Rotor de Bolbogrado - Epeh
 13.00 Totem - AT Celaya
 14.00 Makai - Borrocc Roll
 15.00 Aldapa Taberna - Los heredia
 16.00 Babjana - Nacex
 17.00 Txeyenex - Kamasutra

Iturripe B

13.00 Cartonajes Igamo - Garaje Oscar
 14.00 Irati STS - Sobredosis de Claro
 15.00 Jotakabau - Branka Taberna
 16.00 Komando Alpargat - fraguel Gol
 17.00 AC Surcos - Nuevo taberna

Azaroa 2, Igandea

Zaldibar

9.50 Pipwhis - Potrosorri
 11.00 Pepelus - Betrayer
 12.00 Estrella Tab. - Naranja Mekanika
 13.00 Zotz - Arrogoi taberna

Rugby jokalaria

GARIKOITZ HERIZ

“Aurten taldea nahiko ondo ibiliko dela uste dut”

— Noiz hasi zinen rugbyan?

— Duela 3 urte eta aurten seniorretara egin dut saltoa.

— Zer moduz goiko taldean?

— Ondo, hegal postuan jokatzen dut eta gustora nago. Gainera talde sendoa dugunez, denboraldia ona izango dela uste dut. Oraindik jokalariaiek sasoi sasoi ez egon arren, laster jarriko gara eta berehala etorriko dira emaitza positiboak.

— Gogorra entrenamendutara joatea?

— Ez, giro ona dago eta entrenamenduak batzutan gogorak badira ere, ondo pasatzen dugu.

— Igertzen da gazte eta beteranoen artean desberdintasunik?

— Bai jakina, beteranoek euren legea ezartzen dute beti. Gehien agintzen duena Potato kapitaina da.

— Jokatzeko postu zaiena?

— Mele erdia izan daiteke, nahiz eta guztiak izan euren berezitasunak.

— Rugbyan noiz arte?

— Ahal dudana arte. Gustoko kirola nuelako aukeratu nuen eta asper-tu arte hementxe egongo naiz.

— Entrenatzailea zelakoa da?

— Batzutan gogorra, baina ona. Gogo handia jartzen du eta hori ona da jokalariaiendako.



ESKUBALOIA Iturripen ezin huts egin



Eskubaloi taldekoek jo eta ke egin beharko dute lan sailkapeneko zulo-tik irtetzeko. Talde honek gol asko sartzen baditu ere, jasotakoak gehiago dira. Arrasateko eskubaloiak betidanik defentsa sendoa izan du baina aurten hortxe ditu arazo handienak Herrero entrenatzaileak adierazi duen bezala, “golak sartzen ditugu, baina aurkariak gehiago sartzen dizkigute. Hori konpondu arte larri eta estu ibiliko gara partiduetan”. Datorren zapatuan Arrasatek Deustoren bisita jasoko du Iturripen, eguerdiko 12etan. Bizkaiko taldea sailkapeneko 5. tokian dago 6 punturekin. Norgehiagoka lehiatsua izango da eta lehia horretan trebezia handiena erakusten duenak eramango ditu puntuak. Emakumezko taldeak ere etxean jokatuko du, zapatuan goizeko 10.30etan, Zarautzen kontra. Jubenilak Eibarrera joango dira eta kadeteak Oñatira.


SASKIBALOIA Zer gertatu da?



Lehen ihardunaldiko garaipenaren ostean taldeak behera egin du nabarmen. Bajak, erritmo eta konzentrazio falta, fisikoki moteltasuna, hori guztia igertzen da saskibaloi taldean. Jokalariak eta entrenatzaileak jartzen duten gogo gaur arte ez da nahikoa izan itxura ona erakutsi eta puntuak eskuratzeko. Oraindik goiz da larritzen hasteko, baina berandu izan aurretik neurriak hartzea komeni da. Zapatuan beste talde sendo baten kontra neurtu beharko dituz-


te indarrak arrasatearrek. La Salle eta Arrasate arrasaldeko 5.20etan izango dira lehian. Jubenilek bestalde, Ordizia izango dute arerio, liderra.

RUGBYA Zekorren kontra garaipena



Patxi Gorosabelek zuzentzen duen taldeak irabazteko moduko neurketa izango du zapatuan goizeko 11etan Gara-gartzan. Arratiako Zekorren kontra aurrendenboraldian galdu bazuten ere, Bizkaiko taldea ez da oso indartsua. Horregatik entrenatzaileak garaipena ez lortzeko aitzarik ez dagoela uste du.

FUTBOLA Preferentekoek Atxabalpen zita




Preferente mailako Mondrak Lazkao taldea izango du aurrean domekan, arrasaldeko 3.45etan Atxabalpen. Denboraldiko 9. ihardunaldirako entrenatzaileak Goloren baja izango du aurreko neurketan txartel gorria ikusi zuelako eta Oxeklek ere, zuntz hausturarekin, ezingo du jokatu. Horrez gain, Zuluetak erreabilitazioan jarraitzen du. Mondrak 3. postua betetzen du sailkapen nagusian 16 punturekin. Lazkao 9. postuan dago 13 punturekin.

Emakumezko Mondrak asteburu honetan atsedena izango du, baina azaroaren 8an Anaitasuna izango da aurkaria. Atxabalpen bestalde, bigarren jubenilek Ordiziaren kontra jokatuko dute, lehen kadeteen arerioa Beasain izango da eta infantilena Herrerako Sporting.

Arrasateko pilotarientzat benetako denboraldia hasiko da

Arrasateko pilotarientzat ez dira lasaiak izango datozen hilabeteak. Datorren asteburuan kadete eta jubenil mailakoentzat eskuz banakako Cafes Baque txapelketa hasiko da. Kadetetan Arrasateko ordezkariak Dominguez eta Etxeandia izango dira. Jubeniletan Lazkano eta Belategi. Gaztetxoagoek eskola arteko Deba Arroa izango dute erronka. Benjamin, alebin eta infantil mailakoak arituko dira proba horretan.

Zapatu honetan berriz, Aretxabaletako UDA pilota elkarteak antolatutako txapelketaren beste ihardunaldi bat jokatu da. Eskuz banaka Arrasateko Zuazuaren etsaia Aretxabaletako Mikel izango da. Eskuz binaka Arra-



Santamas txapelketako partiduak astean zehar jokutzen dituzte

sate eta Elgeta izango dira lehian. Mauri Zubillaga entrenatzaileak Gimenez eta Uribarren aukeratu ditu azken partidu hori jokatzeko.

Astlehenean arrasatearrek

lagun arteko partiduak jokatu dituzte Elorrioko pilotarien kontra. Arratsaldeko 5etan Elorrioko frontoian jokatu dira norgehiagokak. 9 urtekoetan Iria eta Jimenez izango dira

herriko pilotariak. 10 urtekoetan Agirre eta Rodriguez II.

Azkenik gaur bertan, arratsaldeko 6etan hasita, Santamas txapelketako partiduak jokatu dira aurrebenjamin, benjamin eta alebin mailan. Kontuak kontu, hemendik aurrera benetako liga hasiko da pilotarientzat. Hilabete gogorrenak otsailetik aurrerakoak izango dira eta ordu-rako sasoi sasoiaren egon behar dute ahalik eta emaitza onenak lortzeko. Zubillaga entrenatzaileak esan duen bezala, entrenatzeko orduan nahi baino arazo gehiago dituzte frontoia-aren egoera kaskarra dela eta, baina hala ere ez daude amore emateko eta aurten ere denboraldi bikaina egiten saiatuko dira.

Urte bukaera arte Saioa eskolako karatekek badute lana

Saioa karate eskolako karatekek lau txapelketa garrantzitsu izango dituzte urte bukatzeko falta diren bi hilabete hauetan. Azaroaren 9an Usurbilen 14 urte beherakoentzat promoziozko txapelketa jokatu da, eta bertan Saioako ordezkariak ez dira falta izango. 30ean kadete eta junior mailakoentzat Gipuzkoako txapelketa egongo da jokoan Errederian. Bertara ere Arrasateko neska mutil ugari joango da. Abenduari dagokionez, kadete eta junior mailako Euskadiko txapelketa egingo da Arrasaten. Saioakoek hartuko dute anto-



latzeko ardura eta dagoeneko hilabete falta arren, hasi dira lanean, euren helburua txapelketa primeran irtetzea

da eta. Urteko azken proba Usurbilen izango dute 20ean. Infantilendako Gabonetako karate Jaialdia.

New York-eko maratoia

Cesar Diez korrikalariak New Yorkeko maratoian hartuko du parte domeka honetan. 46 urteko atleta honek korrika hasi zenetik izan du Estatu Batuetara joateko ametsa eta aurten berarentzat errealitate bihurtuko da. Cesar bi milioi terdi korrikalari bilduko duen maratoira ez doa helburu zehatz batekin, gozatzera eta esperientzia berri bat bizi izatera baizik. Cesar eta bere emazteak ostiralean hartu zuten New Yorkera joateko abioia. Azaroaren 9an bestalde, Behobia-Donostia lasterketa izango da. Loramendi Kirolak 118 korrikalari eman dute izena, horietatik 12 emakume bakarrik.



Citroën Xsara berria

Azken belaunaldiko ametsa.

Claudia Shifferek, notario aurrean inpaktu froga egitean konfiantza osoko ametsa dela erakutsi du..

Azkenaldiko segurtasun neurri onenekin osatutako ametsa.

Bizigarritasunaren ametsa, bere tamainari esker, bere kategoriko handienetarikoa bihurtuz.

Baita bere ekipamendu osatuagatik:

lagunduriko direkzioa, gidari airbaga, bolante

erregulagarria altueran eta sakontasunean, lapurreten

kontrako babesa blokeo elektrikoarekin, aurreko kristal

jasogailu elektrikoak, zabaltzeko frekuentzia handiko urruneko agintea, eta abar.

Eta alboetako airbag bikoitzak, abs, klimatizagailu automatikoa...jartzeko aukera.

Citroën xsara berria da.

Azken belaunaldiko zure ametsak bere esku uzteko kotxea.

Citroën xsara berria.

1.852.000 pta.tik aurrera.*



“Fida zaitzkeen konfiantzazko laguna”

Claudia Shiffer.

*PSN gomendatuak BEZ eta matrikulazio zorra eta garraioa barne, irteera promozioa ez akumulagarria eta Jaurizararen dirulaguntza (PREVER PLANA), hile bukaera arte Penintsulan eta Balearretako stockeko turismoentzat.

Xsara



Citroën Xsara berria. Azken belaunaldiko ametsa.


EZIN IMAJINATU CITROËNEK ZUGATIK EGIN DEZAKEENA.

CHAPIME TAILERRAK

Araba etorbidea, z/g • Tel.: 79 06 57 / 79 45 22 / 7708 67 • Faxe: 77 10 47

■ Aitziber Aranburuzabala

ARRASATE IRRATIKO ESATARIA



1. Zein da zure horoskopoa? Kaprikornio.
2. Sinestuna zara? Norberaren modura bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Hontza.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Bapateko letxe txarra/Entzuteko belarriak.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Jende zuhurrak eta gezurtiak.
6. Amets bat? Pozik bizitzea beti.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Ustelkeria.
8. Gertakizun historiko bat? Euskal Herria aske ikusiko dugun eguna.
9. Nor miresten duzu? Bob Marley.
10. Zeri diozu beldurra? Bakardadeari.
11. Zertaz damutzen zara? Askotan ahoa larregi zabaltzeaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Lagun baten istripu larriaren kontura.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Topiko bat: Aparkalekuak.
14. Eta zuri? Lasaitasuna.
15. Lanbidez aldatzekotan? Artisautzan.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Gaztetxea.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Karatean apuntatu.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Lanarengatik egunean sei. Bestela, *Egin* eta *Egunkaria*.
19. Gustoko janari bat? Urdaiazpikoa.
20. Liburu on bat? *Kalamidadeen liburua*, Joan Mari Irigoienena.
21. Filmerik onena/txarrena? *Tesis* edo *La hija del puma* /Amerikanadak.
22. Musika talderik onena/txarrena? Doctor Deseo/Spice Girls.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Caiga quien caiga/Sorpresa, sorpresa*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Niretzat idatzitako abesti bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Kalean, lotan edo eskulanean.
26. Oporretarako toki bat? Holanda edo edozein irla.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Otorduak prestatzea.
28. Gomendio bat? Muturtuta nagoenean ez hurbildu.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Tokatuz gero ikusi egin behar.
30. 200 milioi irabaziz gero? Gastatu.

Urtebete egin du eskoriatzar honek Arrasate Irratiko esatari lanetan. Eskoriatzatik Arrasatera lanera hasieran eta Arrasatetik Oñatira bizitzera gero. 25 urte ditu, kazetaria da, *El Mundoko* berriemate izandakoa, egunero entzun dezakegu orain FMko 107.7an. Ez da dudan jartzekoa egia osoa esan duena, baina buruari nahikoa buelta eman ei dio erantzuteko orduan, serio hartzen ditu lanak eta.



ESKER ONAK ARRASATE PRESS-EN

HILDAKOEN BERRI EMATEKO EDO ESKER ONETARAKO ARRASATE PRESS DUZU TOKIRIK APROPOSENA ETA MERKEENA.

INFORMAZIORAKO: TEL. 77 08 15


Mme. Butterfly eta Tosca bihar eta etzi Amaia antzokian

Pucciniren opera dator herrira

Borislav Ivanovek zuzenduta, Bulgariako Opera Konpainia Nazionalak Giacomo Pucciniren bi obra ezagun antzetzuko ditu asteburu honetan Amaia antzokian: *Madame Butterfly* eta *Tosca*.

*Madame Butterfly*ren istorio dramatikoak Japongo Nagasakin gertatzen da, XX. mende hasieran. Cio-Cio-San neska gazte japoniarrak (Mme. Butterfly), erabat maiteminduta, guztia uzten du Pinkerton amerikarrarekin ezkontzeko. Ezkontzen dira, seme bat dute eta amerikarra joan egiten da. Bere semearen bila itzultzen da emazte amerikar berria lagun duela. Butterflyk semea entregatu eta bere buruaz beste egiten du.

Tosca obra ere, benetan dramatikoak da. Erroman, 1800. urtean Napoleon Italia erasotzen ari dela gertatzen da istorio hau. Floria Tosca emakume ederra ardatza dela, salaketak, epaiketak, hilketak, afusilamenduak...



Edozein modutan, argumentua orkestazio eta kantari bikainak entzuteko aitzakia besterik ez da kantuen hitzak ulertzen ez dituen publikoarentzat. Interesgarriagoa da Bulgariako Opera Konpainia Nazionalaren eta Borislav Ivanov zuzendariaren kalitatea azpimarratzea.

1953. urtean sortutako opera konpainia Bulgariako

musika erakunde garrantzitsuenetakoa da. Urtero 150 emanaldi inguru eskaini ohi ditu Europa osoan zehar, lehen mailako obrak taularatuz; hala nola, *Aida*, *Nabucco*, *Carmina Burana* edota *Igor printzea*, besteak beste.

Borislav Ivanov zuzendaria, Kurt Masur eta Herbert von Karajan handiekin ikasitakoa da, Moscu, Viena,

New York, Berlin edo Sevilako Maestranzan gonbidatutako maisua. Bulgariako Opera Konpainia Nazionalaren zuzendari orokorra izateaz gain, Berlingo Orkestra Sinfonikoarekin harreman estua dauka. 93an "Meritua" gurutzeari zuzendutako Alemaniako Errepublikaren Federarak, Bulgaria eta Alemaniaren arteko kultur harremanen sendotzean izandako parte hartzeagatik. Urte berean Bulgariako Plovdiv hiriko ohorezko hiritar izendatu zuten bere aparteko merituegatik.

Madame Butterfly eta *Tosca* ikus-entzuterako joan ahal izateko sarrerak 3.500 pezetan jarri dira salgai (bietarako abonoa 6.000).

Bulgariako Opera Konpainia Nazionala San Juan de Dios ospitaleak gonbidatuta etorri da Arrasatera, Gesalibarko ospitaleen mendeurreneko Musika Hamabostaldia-
ren barruan.



Parques & Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ELUSKA ZABALO, MARGOLARIA

“Kalea da eskolarik onena”

Eluska Zabalo batxilergoa hasi aurretik bizitza zertan eman nahi duen garbi daukan pribilejiatu horietakoa da. Sormenak gaintu egiten du. Ezin da alegatu probatu nahi lukeen guztia egitera. Baina horrekin ere, badauka egiten duen edozein gauza ondo egiteko dohaia. Egunen batean Arrasate utzi egingo du hemen aurkitzen ez duen asetasunaren bila. Bitartean, 15 urteko arrasatear honen artea, Eibarko “Topaleku” erakusketa aretoan ikus daiteke azaroaren 9a arte.

- Oleoa da zuk bilatzen zenuena?

- Artearekin zerikusia daukan guztia gustatzen zait: komikia, graffitiak, antzerkia, irratia, musika,... Guztia berdina da, sormena kanporatzea. Ez dut ezer probatzea baztertu nahi.

- Zenbateko garrantzia ematen diezu parte hartu duzun 65 lehiaketetan lortutako 33 sariei?

- Azkenean kurrikuluma tontokeria bat da. Saria irabazteak ez du esan nahi hobe edo okerragoa zarenik. Koadroarekin ez banaiz gustora geratu, bost axola saria ematen badidate. Ez da kontua besteen artean onena izatea, Eluska onena izatea baizik.

Bestela, ahal dudan lehiaketa guztietan hartzen dut parte. Asko ikasten da, barruan daukazu ideia bat denbora muga jakin batean garatu behar delako. Kalea da eskolarik onena.

- Zenbat denbora ematen diozu margoari?

- Udan dexente. Orain, eskola garaian, Bilbora joaten naiz ostiralero Juan Ramón Pérezekin ikastera, eta asteazkenetan Bingen de Pedroren klaseetara joaten naiz Santa Teresara.

- Nola ezkontzen duzu zure



zaletasuna eskolarekin?

- Nahiko ondo. Gurasoek esaten didatenez, “zerk merezi du, 9 bat ateratzeko itota ibili, ala lasaiago eta 8 bat atera?” Beharbada bigarrena da zentzuzkoagoa, baina ni notarik onena ateratzera joaten naiz, ez naiz 5 batekin konformatzen. Azkenean okerrena da ez zaizula ezertarako astirik geratzen.

- Ezta lagunekin kalera ateratzeko ere?

- Ez naiz ateratzen. Ez zait gustatzen Arrasate, itota nago hemen. Beste giro bat aurkitu nahi nuke; neure interes berdinak dituen lagunartea. Hiri bat izan daiteke, Bilbo edo Madril adibidez. Bilbon mobida handia dago artearen inguruan.

- Hemendik kanpora beraz eta Arte ederrak ikasten.

- Bai. Datorren urtean bertan Iruñea edo Madril joango naiz batxilergo artistikoa ikastera, zeren eta hemen, Guggenheim bai, baina batxilergorik ez.

aste gazte

■ BEKAK

• Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen alorrean ikerketa beka kaleratu du lizentziatuei zuzendua. Epea: azaroak 4.

■ LANA

• Bergarako udalak, kimiko bat eta zoologo bat behar ditu. Epea: azaroak 5.

• Nafarroako hainbat herritan administrari laguntzaileak behar dituzte:

- Etxarri Aranaz (egun erdirako), epea: azaroak 15.

- Huarte (egun erdirako), epea: azaroak 17.

- Villafranca, epea: azaroak 20.

■ PERKUSIO TAILERRA

• Iñaki Bruñaren eskutik. Hastapen eta sakontze mailak. Erritmo ezberdinak. Astelehenean 6etatik 9etara.

■ LEHIAKETAK

• Leioako udalak, argazkigintza, diapositiba eta bideo lehiaketa antolatu du. Epea: azaroak 7.

• Barañaingo udalak, IX. argazki lehiaketa antolatu du. Epea: azaroak 11.

• Arrigorriagako udalaren X. argazki lehiaketa antolatu da. Epea: azaroak 28.

• Bilboko pop-rock lehiaketa. Sariak: CD bat grabatzea eta 300.000-150.000 pta. bitarteko lau sari, eta 100.000 pta.ko 5 akzesit. Epea: abenduak 31.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

15 urteko arrasatear honen koadroak Eibarren ikusgai azaroaren 9a bitartean

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Garagartzako Zabalbide kalean pisua salgai (Atxabalpe ondoan). 7 milioi. Tel.: 79 84 06. Egurdietan eta gauetan.

3. Errentan emateko

• Aretxabaletako Bizkaia kalean pisua alokatzen da. Tel.: 79 57 37. Arrasaldeko 6etatik aurrera.

• Santamainan pisua alokatzen da. Tel.: 79 81 15.

• Ikasleendako pisua San Andresko Garro Generala kalean. Tel.: 76 21 70.

5. Etxe konpartituak

• Donostian etxe konpartitu batean sartuko nintzateke. Tel.: 79 49 30.

• Iruñako neska Arrasaten pisua konpartitzeko gertu. Tel.: (948) 26 93 43.

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Egurdietan.

• Eskola inguruan lagun bat behar dugu pisoa osatzeko. Tel.: 77 08 44.

• Gasteizen hiru mutilek laugarren bat behar dute pisua osatzeko. Tel.: (945) 25 10 37. Mikel.

• Arrasaten pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 27 70. Lan ordue-tan. Alberto.

• Donostiako alde zaharrean pisua osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 42 40 41.

• San Andresko Errebuelta, 6 - 5. Ban-jendea behar da pisua osatzeko.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Kontzeziñon garajea alokagai. Tel.: 79 55 20.

• Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

• Garaje itxia alokatzen da Roneoko etxeetan. Tel.: 79 19 64.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press-ek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Leintz-Gatzagak erdi erdian taberna-jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

• Bergaran ileapaindegia alokatzen da. Tel.: 76 56 85.

• Bulegoa jartzeko egokituta dagoen lokala errentan ematen da. 52 m². Bi irteera ditu. Tel.: 79 02 52.

LANA

17. Eskaintzak

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 79 49. Juliana.

• Emakumea gertu umeak eta zahar-rrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 97 11.

• Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Titulodun neska lan administratiborako eskaintzen da. Tel.: 907 94 06 67.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta bulegoak edo lokalak garbitzeko. Tel.: 79 98 28.

• Neska gertu edozein lan egiteko. Tel.: 79 99 63.

• Astelehenetik igandera zure umeak zainduko ditugu. Tel.: 79 20 55 edo 79 65 02.

• Esperientziadun emakume euskalduna pertsona nagusiak eta gaisoak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Marga.

• 32 urteko emakumea bulego edo etxeak garbitzeko gertu. Tel.: 77 00 26. Goizetik arratsaldeko 4ak arte.

• Esperientziadun neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska orduka lan egiteko gertu. Tel.: 79 77 91.

18. Eskaerak

• Multimedia sektoreko elkarteak

bazkidea behar du. Ezagutza eta esperientzia frogagarriak eskatuko dira. Tel.: 71 20 30. eta 929 41 59 43.

• Bi ume zaintzeko neska bat behar dugu. Tel.: 79 94 51.

• Zabalkunde handiko kosmetika konpainia batek lana eskaintzen du emakume serioendako. Tel.: 21 19 90.

• Bi ume zaintzeko emakume edo neska euskalduna behar da. Tel.: 79 76 56.

• Sukaldaria behar dugu. Tel.: 79 68 57.

• Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 14 55. Gaueko 9etatik aurrera.

19. Denetarik

• Ingeles, gaztelera eta euskarazko itzulpenak egiteko pertsona behar da. Tel.: 79 25 75.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• ESO eta LOGSEko klase partikularrak ematen dira. Esperientziaduna. Talde txikiak. Tel.: 79 56 78.

• Alemanezko eta portugesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Egurdiko 1etatik aurrera.

• DBHko ikasgai eta Logse-n matematika emateko gertu. Talde txikiak. Esperientziaduna. Tel.: 79 08 59.

• Majisteritza duen neska batek klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 35 24.

• 3. mailako injinerutza ikasleak LH eta DBH klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 43 56.

• Psikologoak OHoko klase partikularrak, ikas teknikak eta laguntza eskolarra emateko gertu. Tel.: 77 17 02 edo 909 44 88 20.

• OHo eta DBHko klase partikularrak ematen dira. Tel.: 77 00 29.

• Injineritzako ikasleak DBH eta LHko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 33 39.

21. Eskaerak

• Nire euskara hobetzeko, gauez, irakasle partikular baten bila nabil. Astean bi edo hiru ordu. Tel.: 79 34 91. Egurdietan. Jabi.

MOTORRA

23. Saldu

- Garraiorako karroa salgai. Berria eta prezio interesgarrian. Tel.: 79 63 79.
- R-4 salgai. Oso egoera onean eta merkea. Tel.: 79 23 69.
- Seat Ibiza salgai. SS-Z. Ekonomikoa. Tel.: 79 22 42. Igandean 9etatik aurrera.

DENETARIK

26. Saldu

- Ordenagailua salgai prezio onean. Tel.: 79 14 71.
- 1. eta 2. batxilergo teknologikoko euskarazko liburuak erdi prezioan saltzen dira. Tel.: 79 71 25.
- Super Nintendo salgai. Laujoku ditu. Tel.: 79 23 35 edo asteburuetan 13 17 28. Mikel.
- 1,35 zm. ko zubi-hogela salgai. Tel.: 79 38 16.

• Sukaldeasalgai (amairuak, mahaia, hozkailua, ikuzkailua, laba...) dena egoera onean. 55.000 pta. Tel.: 79 19 36.

• Bulegorako mahaia salgai. 78x158zm. Kolore argikoa. Tel.: 79 08 23. Iñaki.

• Laruzko kremaileradun txaketa beltza salgai. Berri berria. 40. tailakoa. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 79 35 47. Gauez. Edurne.

• Kerosenoako berogailua salgai. Tel.: 79 78 65.

• Bi mandodun Super Nintendo salgai. 7 joku ditu. Prezio ona. Tel.: 77 10 82. Nestor.

• Bigaren eskuko trikiti txikia salgai. Pigini markakoa. Egoera onean. Tel.: 79 08 37.

• Komunekomanparasalgai. Egoera onean dago. 1.50 m. Prezioa: 12.000 pta. Tel.: 79 97 60.

• Conserban Roller karabana salgai. 45 lagunendako. Oso egoera onean dago. Tel.: 79 59 71.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko gara jasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Hiper-Eroskiko kafetegian txaketa urdina galdu nuen. Ume batena da eta bihotz gorriak ditu aurrealdean. Tel.: 77 01 51. Espe.

• Urriaren 3an gizona aterkin luze eta beltza desagertu zitzaidan Lagun-Aroko aseguruetakoa. Konfundituta hartu bazenuen dei egin 79 39 88 telefonora.

• Casio markako erloju beltza galdu nuen Etxeazpia eta Larringain kale inguruan (Malvinas). Sarituko da. Tel.: 77 10 20.

• Urriaren 28an estutxe baten zeuden betaurrekoak galdu nituen Olarte kalea inguruan. Tel.: 79 07 24.

32. Aurkitu

• Ordulari bat aurkitu nuen Munarrekoko zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79

08 04.

• Irati taberna parean bizikleta bat aurkitu genuen, zeurea bada pasa zaitez bertatik.

35. Denetarik

• Ford Scort markako kotxea lapurtu digute. Gris argia. SS-75 84-T. Urriaren 23an desagertu zen Eskoriatzan. Tel.: 79 37 68.

HARREMANAK

35. Kontaktuak


- Zumarragara egunero kotxez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Egurditan.
- Astelehenetik ostegunera Leioara joan behar dut autoz. Goizeko 9etarako iristen naiz eta buelta 14.00etan. Bidaia konpartitzea interesatzen bazaizu deitu 79 48 83 edo 79 65 34 telefonora.
- Euskal heavy-rock talde baten baxulari behardugu. Tel.: (945)136703. Jokin.



LORAMENDI N

Trabel puntuak irabaziz

NATURAZ GOZATU!



Music Box interneten entzungo da

Arrasate Irratiko lehen web orria

Music Boxeko arduradunak, irratsaioa Interneten iragartzeko web orria ari dira presatzen. Momentuz orria lantzen dabilta, baina euren asmoa irratsaio osoa munduko edozein lekutan sarean sarean bidez entzuteko aukera ematea da. Web orrian, irratsaioaren eta Arrasate Irratiaren nondik norakoak, asteko diskoaren zehaztasunak eta estatuan gehien saldu diren diskoen zerrenda eskainiko dute.

Music Box Arrasate Irratian hil honetan bertan hasi diren irratsaio berrietako bat da. Izenak dioen, musika du ardatz, baina ikuspegi zabalaz kantak programatzeko orduan Music Box ez da estilo bakarrera mugatzen. Entzule guztiei begirako musika programa egin nahi dute. Horregatik, denetarik entzun daiteke: musika arina eta lasaia, rocka eta etnikoa, klasisikoak eta merkatuko azken



Music Box ostiralero gaueko 10etan Arrasate Irratian

berritasunak. Ez dago mugarik. Pedro Costaren hitzetan "irradi honetan bazegoen musika hutsune bat; beste irratsaioetan ez dira jartzen 40 Principales edo Euskadi Gaztean entzun daitezkeen kantak, eta horri ere lekua egin

nahi diogu Music Boxen".

Ostiralero gaueko 10etan, kontzertuen errepaso, musika munduko berriak, asteko disko berezia eta salduenen zerrenda, Edu Abasolo eta Pedro Costarekin. FMko 107.7an. Arrasate Irratian.

Arrasate Irratia 107.7 FM

ZAPATUA

9:00 **Albistegia**
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jallalal** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarriekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasiko, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**
9:30-11:00 **Goizoro**
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena


22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginitako magazina.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.
23:00-24:00 **Drugstore**. Makina musika, Belen Aranbarri eta Errukane Apeiribairekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 1	ASTELEHENA, 3	ASTEARTEA, 4	ASTEAZKENA, 5	OSTEGUNA, 6	OSTIRALA, 7
Asteazken zehar eskainitako programa interesgarrien errepikapena	13:30 Astebete (Errepik.)	13:30 Mondrasport . (Errepik.)	13:30 Burua astinduz . (Errepik.)	13:30 Munduari bueltaka . (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak . Patxi Montero.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	19:15 Kukaratxa Motel . Unai Iparagirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak .
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldirako futbito txapelketa, gonbidatuak, ... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Burua astinduz . Eneko Allende. Barón Rojo taldeak Durangon hilaren 18an eskainitako kontzertua.	21:30 Munduari bueltaka . Maria Agirre. Joan den abuztuan Elgoibarko sei lagunek Eskandinabian bizikletaz egindako 2.400 Km. etako abentura, protagonisten ahotik.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete . Patxi Montero. Asteazken zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrien sakontzea.
14:45 Lotsa barik . Gonbidatua: Aitor López Rekarte "Bonba".				21:30 Kukaratxa Motel .	



Volvo



Mercedes



Hyundai

Hemen zure amets guztiak egon daitezke



Zatoz eta bete itzazu!



Nissan



Mazda



Chrysler

- Ordezko pieza originalak • Salmenta osteko zerbitzua • Finantzaketa zure neurrira
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura • Autoen alokairuen enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak • 3.000 m² automobilari eskainita

aldibi

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak...

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42

FAGOR 